



ERREGIMEN EKONOMIKOA

Bidaia- eta garraio-gastuak

Bidaia-gastuak ordaintzea

Eusko Legebiltzarrak ordainduko ditu legebiltzarkideek erakunde- edo legebiltzar-ordezkaritzako jardueretan egindako gastuak, Legebiltzarreko Mahaiak horretarako baimena eman ondoren. Gastu ordaingarri horietan sar daitezke garraio-, mantenu- eta ostatu-gastuak, eta zerikusia duten beste batzuk, hala nola aparkalekua, autobidea, eta abar.

Aldez aurretik egiaztatutako gastuak soilik ordainduko dira, betiere Eusko Jaurlaritzako sailburuei ezarritako erregimenaren arabera. (Mahaiaren erabakia, 2013/03/12koa).

Oro har, Legebiltzarrak enpresei zuzenean ordainduko die garraio publikoan eta ostatuetan egindako gastuak edo, faktura aurkeztu ondoren, egindako gastuari dagokion dirua itzuliko du.

Legebiltzar-organoen eta legebiltzarkideen joan-etorrietarako eta beste jarduera batzuetarako gastuak

Aldia	Aktibitate parlamentarioa	Batzordeetako bidaiak	Guztira
2015eko 1. hiruilekoa	133.506,04 €	15.077,00 €	148.583,04 €
2015eko 2. hiruilekoa	137.210,21 €	5.900,26 €	143.110,47 €
2015eko 3. hiruilekoa	128.205,76 €	36.060,40 €	164.266,16 €
2015eko 4. hiruilekoa	142.676,29 €	21.612,94 €	164.289,23 €

VIA-T sistema

Legebiltzarkide bakoitzak Via-T gailua jasoko du legegintzaldiaren hasieran, beren legebiltzar-jarduera betetzerakoan Euskal Autonomia Erkidegoko ordainpeko autobideetan soilik erabiltzeko, eta Ganbera arduratuko da bidesariak ordaintzeaz.

Via-T gailua duten legebiltzarkideen kopurua (2015/10/31ra arte)

74

Zenbatekoa

78.522,74€

